

EKPK KUDEATZEN DITUEN DEBA, HONDARRIBIA ETA ORIOKO KIROL-PORTUETAKO ETA DONOSTIA, GETARIA, MUTRIKU, HONDARRIBIA-BETERANOAK ETA BERMEOKO KIROL-KAIETAKO INSTALAZIOETAN ITSAS, MANTENTZE-LAN, KONTROL ETA ADMINISTRAZIO-HARRERAREN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ESLEIPEN-EBAZPENA

2014ko abenduaren 5ean EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A. enpresak EHAAn eta Diario Vasco eta Deia egunkarietan EKPk kudeatzen dituen Deba, Hondarribia eta Orioko kirol-portuetako eta Donostia, Getaria, Mutriku, Hondarribia-Beteranoak eta Bermeoko kirol-kaietako instalazioetan itsas, mantentze-lan, kontrol eta administrazio-harreraren zerbitzuak kontratatzeke iragarkia argitaratu zuen.

2015eko urtarrilaren 12an, EKPrez bulego nagusietan, A gutun-azala irekitzeari ekin zitzaion. “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMEN EKONOMIKO NAHIZ TEKNIKOA” Administrazio Agiriak eskatutako dokumentazio orokorra zuen. Hurrengo eskaintzek hori behar bezala, guztia osatua eta oinarriari egokitua aurkeztu zuten:

BIDEZAIN,S.L.

SERBITZU ELKARTEA, S.L. ETA IRAGAZ WATIN,S.A. ABEE

2015eko urtarrilaren 15ean “IRITZIA ESKAINTZEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK” C gutun-azala ireki zen.

C gutun-azala ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako eskaintzen azterketa zehatza egin zuen, kontratazioa arautu duen Administrazio Baldintza Berezien Agiriak 17. klausulan xedatutako balioztapen-irizpideekin bat.

Ondoren, kontratazio-organoak txostena egin zuen.

2015eko otsailaren 5ean “FORMULAREN BITARTEZ ZENBAT DAITEZKEEN IRIZPIDEAK” B gutun-azala irekitzeari ekin zitzaion. Aldez aurretik bertaratutakoei A gutun-azalak zituen dokumentuen kalifikazioa eta C gutun-azalaren ebaluazio-emaitza jakinarazi zitzaizkien.

B gutun-azala ireki ostean, eskaintzaileek C eta B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta ebaluatzetik honako azken puntuazioak lortu dira:

ENPRESA	C GUTUN-AZALA	B GUTUN-AZALA	GUZTIRA
BIDEZAIN	43.79	30	73.79
SERBITZU-IRAGAZ WATIN ABEE	62.48	22.97	85.45

Eskaintza guztiak ireki eta balioztatu ondoren, puntu gehieneko eskaintza aurkeztu zuen eskaintzaileari (Serbitzu-Iragaz Watin ABEE) kontratazio-organoak kontratazioa arautu duen Administrazio Baldintzen Agiriak 20. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkez zezan eskatu zion.

Serbitzu-Iragaz Watin ABEE enpresak eskatutako dokumentazioa aurkeztutakoan, kontratazio-organoak ondorengo

EBATZI DU

EKPk kudeatzen dituen Deba, Hondarribia eta Orioko kirol-portuetako eta Donostia, Getaria, Mutriku, Hondarribia-Beteranoak eta Bermeoko kirol-kaietako instalazioetan itsas, mantentze-lan, kontrol eta administrazio-harreraren zerbitzuen kontratazioa SERBITZU ELKARTEA,S.L.- IRAGAZ WATIN,S.A. ABEE sozietateari esleitzea.

Kontratazio-organoaren ebazpena Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin bat dator.

SERBITZU ELKARTEA,S.L.-IRAGAZ WATIN,S.A. ABEE sozietateak eskaintzak balioztatu direnean ondorengo puntuak lortu ditu: 85.35 puntu guztizko 100 punturen gainean. Puntuak hurrengo moduan banatu dira:

LORTUTAKO BALIOZTAPENA:

IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
ESKAINZA EKONOMIKOA	22.97
LAN-PROGRAMA	26.08
GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK	9.6
ESPERIENTZIA ETA TXOSTENAK	12
HOBEKUNTZAK	14.8
GUZTIRA	85.45

Esleipen hau enpresa eskaintzaileei jakinaraziko zaie.

Administrazio Baldintza Berezien Agiriak 22. klausulan xedatutako epean, enpresa esleipendunak klausula horrekin zerikusia duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, kontratua legezatu ahal izateko.

Gasteizen, 2015eko otsailaren 19an

**SIN.: EDURNE EGAÑA MANTEROLA
EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A.KO ZUZENDARIA**